

*263/1998 DEKRETUA, urriaren 6koa, Euskararen Gaitasun Agiriaren eta irakaspostuetarako Hizkuntz Eskakizunen baliokidetzak finkatu, eguneratu eta berresten dituen.*

Euskaltzaindiaren D tituluaren jarraipen gisa Euskararen Gaitasun Agiria (EGA) sortu zenetik (1982/4/22ko Agindua, 1982/5/4ko EHAAAn argitaratua eta 1982/9/20ko Agindua, 1982/11/6ko EHAAAn argitaratua) hainbat baliokidetzak ezarri izan zaizkio urteetan zehar Agiri honi, beste hainbat arau-xedapenen bidez, esate baterako Euskal Filologiako karrerarekin, hizkuntza eskola ofiziale-tako euskal ikasketen gaitasun-mailarekin eta abar. Xedapen horiek data desberdinetako testuetan barreiaturik daude, ordea, eta gertaera horrek bilatze-lana zaildu egiten du. Horregatik, arauzko erabaki horiek bildu egin dira dekretu honetan, erreferentzia bakar bat eskaintzeko. Biltzeaz gainera, zenbait kasutan eguneratu ere egiten da oraingoa baliokidetzak horien balio-esparrua.

Bestetik, Euskal Irakasleen Kidegoei buruzko 2/1993 Legeak bere 53.2 atalean ezarritakoaren arabera Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ematen dituen hizkuntzazko egiaztagiri desberdinak irakasleen hizkuntz eskakizunekin baliokidetzeko eta parekatzeko sistema egoki bat ezarri beharra zegoen. Martxoaren 9ko 47/1993 Dekretuaren bidez egin zen lehenik baliokidetzak hori. Dekretu horren indar-hartze eguna, 1993ko apirilaren 3a, baliokidetzak horien azken muga-egun ere bilakatu zen ordea. Gero, muga horrek zekartzan arazoak konponbidean jartzeko martxoaren 10eko 42/1998 Dekretua eman zen, aurrekoa (47/1993koa, alegia) aldatuz eta EGAREN eta bere parekoen baliokidetzarako muga-egun berri bat ezarriz: 1998ko abenduaren 31koa hain zuzen ere.

Era berean, kontuan hartzekoa da apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak, EAEko herri-administrazioetan euskararen erabilera normaltzeko prozesua arautzen duenak, bere 41. atalean baliokidetzak batzuk ezartzen dituela bere esparruan.

42/1998 Dekretuak agintzen duenaren ildotik, bestalde, HE2ko curriculumak eta irizpideak berri-kusteko azterlana egin berria du Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak. Horren ondorioz, egoki ikusi da aurreko bi dekretuek ezartzen zuten EGAREN eta Irakasleen HE2ren arteko baliokidetzak berretsi eta finkotzat ematea.

Bestetik, garai bateko IGA, GUMA eta EIT ez dira dekretu honen xedapen-zatian aipatzen. Horiek irakasleen kasuan kasuko hizkuntz eskakizunarekin baliokidetzeko aukera 47/1993 Dekretuan finkatu zen, 42/1998 Dekretuaren idazkuntzaren arabera zehaztu zelarik, eta zehaztaperan horri jadanik amaiera eman zaio. Gaur egun ez da, gainera, ez IGARIK eta ez GUMARIK luzatzen.

Azkenik, HE1en kasuan ere oinarrizko baliokidea finkatu nahi izan da dekretu honen bidez.

Ondorioz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren eta Kultura sailburuaren proposamenez, Jaurilaritzaren Kontseiluak 1998ko urriaren 6an egindako bilkuran berriaz aztertu eta onartu ondoren hauxe

#### XEDATU DUT:

1. atala.– Euskararen Gaitasun Agiriaren (EGAREN) baliokide dira ondoko multzootan zehazten diren titulu eta egiaztagiriak (dekretu honetan izartxo bidez adierazten direnak balio-aitormenak dira):

1. multzoa: EGA eta bere aurrekoak.

– Euskaltzaindiaren D titulua.

– Nafarroako Gobernuaren EGA agiria (eta Nafarroako Gobernuak bere aginte-esparruan finkaturik dituen EGAREN baliokideak).

– Labayru Ikastegiko 3. mailako agiria (1982ko irailaren 19a baino lehen emana).

2. multzoa: EAEko eta Madrilgo Hizkuntza Eskola Ofizialak.

– EAEko hizkuntza eskola ofizialetako euskal gaitasun-maila.

– Madrilgo Hizkuntza Eskola Ofizial Nagusiko euskal gaitasun-maila.

5. multzoa: Hizkuntz Eskakizunak.

– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren irakasleen 2. Hizkuntz Eskakizuna (HE2) (azterketa bidez lortua denean).

– EAEko Administrazio Orokorreko 3. Hizkuntz Eskakizuna (HE3) (azterketa bidez lortua denean).

2. atala.– Euskal irakas-sisteman ezarri diren hizkuntz eskakizunak egiaztatzeko, baliokidetzat joko dira honako hauek:

2.1.– Irakasleen 2. Hizkuntz Eskakizunaren baliokidea:

EGA (eta bere baliokideak).

2.2.– Irakasleen 1. Hizkuntz Eskakizunaren baliokidea:

EAEko hizkuntza eskola ofizialetako euskal ikasketen 4. maila gainditua izatea.

3. atala.– Dekretu honen 1. atalean aipatzen diren baliokidetzei dagokienez, titulu eta egiaztargiri horiek ziurtatzen duten euskara-maila egokia dela bermatzeko beharrezko neurriak har ditzake Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak. Maila hori egokia ez dela egiaztatuz gero, handik aurrerako titulu-egiaztagirien kasuan dagokion baliokidetzat indargabeturik utzi ahal izango du Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak.

## AZKEN XEDAPENAK

Lehena.– Baimena ematen zaio Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuari dekretu hone-tan ezarritakoa bete eta garatzeko xedapenak emateko.

Bigarrena.– Honako arau hauek indargabetuta uzten dira:

– 42/1998 Dekretuaren atal bakarraren 2. puntua (EHAA: 1998/3/24);

– 1982/9/20ko Aginduaren 30. atalaren 1. puntuaren lehen pasartea eta 32. atalaren lehen pasartea (EHAA: 1982/11/6);

– 1984/1/12ko Aginduaren 1. atala (EHAA: 1984/3/23);

– 1984/6/26ko Aginduaren 2. atala (EHAA: 1984/7/9);

– 1986/2/19ko Agindua (EHAA: 1986/3/10);

– 1991/11/15eko Aginduaren 1. atala (EHAA: 1991/12/4);

– 1996/1/5eko Agindua (EHAA: 1996/2/8);

– 1997/2/14ko Aginduaren 1. atala (EHAA: 1997/3/24).

Hauetaz gain, dekretu honetan xedatutakoaren aurka leudekeen neurrian maila bereko edo apalagoko beste arau guztiak indargabetuta uzten dira.

Hirugarrena.– Dekretu hau EHAAan argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 1998ko urriaren 6an.

Lehendakaria,  
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua,  
INAXIO OLIVERI ALBISU.

Kultura sailburua,  
M.<sup>a</sup> CARMEN GARMENDIA LASA.